



Dublin'go Eukaristi Batzara.

Eukaristi - Batzarak, beti dira zoragariak, eta egiz esan geinke bata baño bestea edefagoak. Inon agertzekotan ementxe bai ederto agertzen dala, ziñestearen indafa. Yauna egiz eta benetan Eukaristian ezpalitz, ainbeste gauza eder azalben barik geldituko litzakez.

Irlanda'n egunokaz ospatu dan Eukaristi-batzar onek baña berarizko zerbait euki dau katolikotafontzat, begikoago egin dabena, eta ez diranen artean be eragipen andia izango dabena. Aibat gizalditan yasarpetua izan dan latefi onek bere ziñesmen sendoaren agerpen edefa emon dau, azkatasuna lortuteko bizia emon dautson ziñestearena. Ez da ba afitzekoa, Yaun altsuari egin dautsezan emaitzaren eskar onez, bere Yabetasuna, artortzen dabela, lurbira gustiaren aurfan azaldu danean. Azkatasuna lortu daberen eskeretik egin daberen yarik zoragariena izan da. Orixe dala ta, al bait zeatzen yazokun bardingabe onen bafi emongo dogu.

Otoi eta an.

Irlanda'rak XXXI'n Eukaristi Batzara bertan egingo zala iragarfi eutsenetik, gertakizunak egiten asi ziran, lan zintso eginda, baña batez be, otoyaren indafa autortuaz, lurbira guztiko katolikoei, otoi taz laguntzeko eskatuaz. Eta bai lortu be. Ara joñala' ren azkenetararte eskiñi eutsezan otoi eta laztasunen zenbakia: ordurarte bakafik 167 miloi egintza on, Eukaristi Batzaren alde lurbira gustian eskiñi ziran, eta onein artean 11 miloi mesa ta 7 miloi yaunartze.

Umeen yaunartza.

Batzaren aurfeko egunean, Irlanda'ko eleiza gustietan umeen yaunartza egin zan, Yaunari, Batzar onuratsua egiteko, languntza eskatzeko asmoz. Ikuskizun benetan pozgafia eleiza gustietan neska-mutikoak zuriz yantzita, otoi egiten ikustea! 750.000 umek yaunartza egin eben. Egun onetan bertan Aita Santua'ren Ordezko Lauri kardenal agurgafia, bere laguntzaleakaz, andikiro artu eben, Latefi-Agintari-Buru, De Valera bertan zan beste erkaltsein edo ministroakaz. Aita Santua'ren Ordelariari afera egiteko 500.000 lagun inguru bildu ziran. Bere inguruan 200 Gongotzain, eta Gotzain yoyazan. Gotzain eleizaren aurfan 100.000 lagun bildu ziran Aita Santua'ren ordelariaren onspena artzeko. Gotzain artean Amerikafak 30 ta ingalanda'rak 25 izan ziran. Dublin'go uria lenengo egunetik txiki agertzen zan ainbeste bidezti artzeko, bertan bizi diran aña erbestetar bildu ziran, eta eraltzaleak naiko lanik izan eben toki egiten.

Tokirik ezagaitik, gudaldian lez, zelayetan oyal txabolak ipini bearean aurkitu dira. Dublin'go uria ertz bateti besteario apainduta, argiz beterik agertu da.

Etixerik txiroenak, apainduta gabaz argiz beterik agertzen dira, Eukaristia'ganako maitasun sutua agertu gurarik.

Aita Santua'ren Ordelari Lauri yanzkordunari egin dautsen afera bardingabea sartzeko; zertzalada oneitan obeto ikusi geinke. Irlandar gudarien egazkin talde edefak ekafi daben itxasontziari, amabi «mila» bidean kurutza antza dabela lagundu dautse. Agintari nagosi gustiak aurfen izan dira, Aita Santua'ri Seme-maitasuna agertzen.

Batzaren asierako eleizkizuna.

Agintari, latefi ordelariak, eta bazkun gustietakoak bertan zirala, Aita Santua'ren idazkia irakufi ondoren, Byrne, Dublin'go Gongotzainak agur-itzaldia egin eban, Aita Santua'ren Ordelari ta lurbira gustitik Yesus Oteunduari maitasuna agertzen etofi ziran gustiei ondo etofia emonaz. Ondoren Heylen, Namur'go Gotzain eta Eukaristi-Batzaren lendakari orokofak itz egin eban gero. Ondoren Lauri kardenalak itz-egin eta Gure Yaunagaz onetsi zituan, eleizan eta inguru gustian ziran danak beleunikotzen ziran bitartean.

Gizonen eguna.

Ilaren 23'an gizonen eguna izan zan. Latefi gustietako bideztiak euren batzafak, yaupa, entzun eta batzartxoak egin ondoren, aratsaldean gustiak Phoenix Park' en bildu ziran, eta Lauri Aita Santua'ren kardenal ordelariak, Gure Yaunagaz onspena emon eban. Zelai artan onspena artu ebenak bakafik 300.000 gizon izan ziran. Eleizetan tokirik ez da askoak kalean egon bear izan ziran goizeko batzar eta eleizkizunetan.

Zertzelada batsuk.

Dublin'go uriak argien uria dirudi. Etxe gustiak argituta dagoz eguna balitz lez eta protestanteak be euren etxeetan argiak ipini dituez. Argi diridirezale edo «reflectorak» iru miloi bujia eukenek, ortze ilunean Adoramus itza irarten izan dabe.

—Ipar Amerikatik 30 Gotzain eldu dira, Polonia'tik 25, Ingallanda'tik 26.000 bidezti eldu dira, Eskozia'tik 16.000, eta Ipar Amerika'tik 20.000. España aldetik 200 bidezti ta Gotzain bi. Euzkotararak be talde bat izan dira, euron artean gure bazkide Leizaola'tar Karmel bere emastiak in eta Herandonea osagile azkafa abertzaleen izenean. Onek De Valera ikertu ta Euskeraz «radio»tik itzegingo dabela adirazi dau. Australia, Nueva Zelanda, Filipinas, Txina ta Turkia'tik milaka bideztiak eldu dira. Ingalandar izparingiak esan dabenez, miloi bat bideztientzat ostatuak eskatu dabez baña tokirik ez da izan.

Phoenix Park, ludian, dan andi eta ederenentzat dago. 7.290.000 neurkin edo metro laukitu daukoz gustiz, erdian zelai izugafi bat

orlegiz yantzirik. Bertan esan zan katoliko azkatasuna lortu ebelako eungafen urtea ospatzeko Yaupa, entzutera 500.000 lagun bildu ziran. Oin beste ainbeste izango dira.

Toki onetan gizoste izugafia eralduko da. Gizonak alde batean emakumeak bestean; bakoitzak bere zenbakia izango dau ta eraltzeko 20.000 lagun autu ditue.

Emakume ta umeen eguna.

Gizonen egunaren uferngo, emakumeen eguna ospatu zan. Eleiza gustietan iru ordu gabardi aurfetik Gure Yauna agirian eleiza gustietan ipini eben. Eleiza gustiak beterik, eta goiz goizetik yaupak esan afen, milaka askok kaletik entzun bear izan eben. Zenbatu ezin ala emakume bildu ziran aratsaldean Aita Santua'ren Ordelariak Gure Yauna'gaz emon eutsen onspena artzeko. Uferngo ume begikoen eguna izan zan. Yakiña, umeen yayak eferugetasun usain berarizkoa daukela dirudi, eta ofexegaitik edo gure biotza geyen poztuten dabena da. Phoenix Park'eko zelayan Sydney'ko Gongotzainak Gotzain-Mesa esan eban. 500 umek «Angelis» yaupa abestu eben, eta 100.000 umek yaunartu eben. Gustiak zuriz yantzita yoyazan. Bertan zan De Valera Irlanda'ko Lendakaria, bere alabatxoa zuriz yantzita eskutik ebalatzen. Ori da ikasbidea emoteal Onango agintarrietan efiak itxaropen osoa euki leikie.

Azkenengo eguneko ibildeun zoragafia, Aita Santua'ren Onspena.

Ilaren 26'n Eukaristi Batzara amaitu zan, inoz ezagutu dan eleizkizun zoragafienaz. Aurfeko gau gustian bultziz eta itxasontziz, bideztiak ugariak eldu ziran. Phoenix Park'en Gotzain-Mesa nagosia Baltimore'ko Gongotzainak esan eban, Kardenal Ordalaria ta irureun gotzain inguru lurfeko baster gustietatik eldu diranak bertan zirala. Gizon eta emakumetan miloi batetik gora izan dira Mesa entzun dabena. Amaitu zanean Kardenal Ordelariaren onspena, gustiak belaniko artu eben.

Afatsaldeko ordu bi ta erdietan, ibildeunak sei tokitatik urten dau, O'Connell'enz ubian gustiak batzeko. Aurfetik yoan ziranak ordu ta erdi igaro eben. An bildu ziran Gotzain eta Agintari gustiak, eta Aita Santua'ren Ordelariak itzaldi laburtxo bat egin eban, Irlandar gustiei egin eutsoen arera bardingabegaitik eskefak emoteko, eta Eukaristi-batzar au orain arte egin diranen artean edefena izan zala esan eutsen. Amaitu ebanean, XI'n Pio agurgafiak, Eroma'tik radio bidez, belanikotuta egoan gizoste izugafiai bere onspena emon eutsen. Aita Santua'ren itzak argi-argi entzun ziran.

Onantxe amaitu zan, Eukaristi Batzar ospetsu au. Izparok amaitzeko! Gora Irlandar katoliko zintsoak!..

M'tar G.

ARGI DONEA gipuzkeraz salgei daukaguz JAUNGOIKO-ZALE' ren idaztitegian, 4-lauerlekoan dagoz.

Euskal-erriko izparrak

NAPARRA BIZKAYA

Iruña.

Zenbeit egunez egunaldi politikak egin ditu, baño iragan igandetik beriz ere, jez ote gara leengo aro tzafera itzuliko? Beniñe egoaitzeak jotzen digu eta alde untarik beñere ez da gauza onik eldu.

Gure ogiak ain poliiki pikortzen asiak eta egoaizeak tenore gabe idortuko ditu.

Agian Jainko Jaun onak lagunduko digu.

San Fermin jaietako usaña nabari da. Denda leku eta etxolak egiten ari dira. Irargari lafietan, lau zezen-lasterketa adiarazi dizkigute. Ikusten dozuen bezela, estatutoaren atetik gelditzeak, jostagurak etzaizkigula tipitu.

Elduden S. Pedro egunean bi jai ditugu.

Bat; urtero egiten dugun zartzaroaren gorasafea; Nafafoako 5 erkialdetarik 20 gizon-emakume xaar eldu dire, erki bakotxatik lau: bi gizon eta bi emakume.

Bigafena; Orfeoneko zuzendari Mujika jaunaren gorasafea Gayafe delakoan. Musikari eta kantari guztien artean jai edefa eginen dute.

Beste batzu, aldiz gogozko ariketarak egin gogo dituzte, eldu den 4'gafenetik Tudelan, neskatxentzat eta A. Bolinaga jesuitak zuzendurik.

Iruña-n Blanka delako monjetean, oraitik eldu den 6'gafeneraño; A. Franziskano batek emanik.

Biana delakoan, karlistek ango telegrafisteri jo bide zioten eta zauritu; 16 karlista giltzapeturik eta alkateari alkategoa utziariz, Gobernadore jauna befiki an egoa da, zaurituari agefaldia egitera; eta auzia xuriztera.

Itzultzean «Los Arcos» delakoan gelditu zen, ango eztabaiak zuritu beafez edo.

Astelenean befiz Tudelan zen, arata deiturik Kora-Fitero-Capaoso eta Villafranca-ko buruzagiak, ango langilen arteko eztabaiak antolatzeko.

Lanak dituzte emen; Beunza diputadu jaunak eta emengo tradizionalista-buruak jakiteko noraraño eldu daiteken gure lege zararen gure ganatzeko; abertzaletasun ur-zikinetan edan gabe. Ezin ditekena; iturburu bat baizik ez dute-ta.

Gisa beraz euskararen aldeko maitetasunaren negufian ere efan dezatela noraraño españazaleak eta nondik abertzaleak.

Ezin ditekena; maitetasun bereziak dire ekena eta gurea.

Azkenean, aitortu bearko; gure esku-zuzen guztien mamia gure abefia dela, besteenganik berexia.

Urbilen aldi artio, Jainkoak ala nai duelarik.

LAREKO

JANTZIAK

gizonentzako Teadoro-nian egingotzue inun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.

TOVALINA Y C.ª L. D.

SOMERA TT BILBAO

Lenengo onian sartukeria dendatik.

Eunak eta soñeko egifak Zea'ar' tar Erupin

Cenderia 15 Bilbao

Mañari.

¡Durango'ra!

Gaur, il onen 3'gn., Durango'n, bertako batzokijaren askundia dala-ta, euzko-jai eder-edefak ospatuko dira. Au dala-ta, efi txukun ofetan gaur, milaka abertzaliak batuko dira. Emekuok be (J. I.) dan-danak juango gara; bertan egingo diran itzaldi ta jai aberkoyakaz, geure bijotzak Euzkadi geure Abefijaren maitasunian sutu datezan be. ¡Danok, ba, Durango'ra!

Juan-eterijak.

Valladolid'era juan zan Kaltzad' tar Jone «Ormaetxe»ko neskatila; Eibar'era, Itufitza'tar Kolestin eta Gonzalez - Audikana'tar Jakinda ta Iñaki mutikuak. Ereño'n deun Jon yaupak igarota, larunbatian etxeratu zan, Ibañeta'tar Efuipiñ txauburu jauna.

Egun batzuk igaroten aurkitzen da Zabala'tar Miren Arantzazu neskatila.

Osatuta.

Kaltzada'tar Saturnine, «Kapana-Bafenengoa»ko anderea, bere gexo luzetik osatuta, igandian meza nagosira etofi zan. Asko poztuten gara.

Mendigoxale erimiak.

Igande afatsaldian, agurtu gebazan emen, Bilbao'ko abertzale zintzo ta ezagun dan Efasti'tar Joseba Mirrena jauna ta bere umetxuak, eta San Julian'tar Mikel eta Pirmin mutil gasetxuak. Danok, Durango'tik Urkiola'ra osteria oñez eginda etofi ziran. Atxarte'tik igon, eta emeko bitxabal-etik jatsi ziran eta. ¡biltaldi edefal!

Efasti jaunaren umetxuak, oindiño, amar, zortzi ta sasi urtedun neska-mutikuak diran afen, ibiltaldi ain luzia egin eben antzik ez eben. Durango'ranta txairo ta bizkor juan ziran-eta. Urte batzuen buruan (osatsuna ba' dabe beintzat) ja zelako mendigoxaliak ixango diran! Edozeneñ ezituz atzian itxiko, ume adoretuok.

Oturuntza.

Igarotako igandian, Mendizabal'en makina-etxera, Durango'tik ogetaka lagunak etofi ziran. Bertako zugatz-artian, bazkari eder bat egin eben. Eta egun artako eguraldi edefak lagunduta, umore onian eta bake obian egin eben dana.

Ikuin barija.

Geure Abefijaren ikufin barija egiteko dirua pilatzen asi gara. Lendik daukoguna, txikija dala-ta, beste bat egiteko asmua artu dogu-ta.

¡Eta geyago ezer bez?

¡Ola! Izpar gustijak ipini eztodazala be zeuk ba-dakixu jezta...? Mugaña aldeko jentiatzaz zer edo zer esango neuke... baña... idazkitxu au luziegi be ba' dua ¡bai? ta beste egun baten esango dautzut. Aztuten ez-bayat.

MAÑARIKO

Natxitu.

Angelutzuko «Ur-gosoari».

Asko poztu nozu zuk ere zeure izpartxuakin; or, be aldetik, zatofak bezela astertu egizu lufa ta landara onak emoteko moduan gozatu; emendik goitik neuk zainduko zaitudaze. «Musturtxuk» zuen eta menditafen arduria artu dauku, baña ¿beriak? Or aldebaster aldian oraindik jentia gogor agiri da. «Ekin» izparing'i dotore au eroatera asko asartu dira, baña Estatutoari euren botua emotera... oraindik ez ei dagoz. Guzura dirudi ofek, bada eztozue ikusten zuek lenago efi bakotxian abertzale